ñ) Hondakin arriskugabeak lege honetan ezarritakoez bestelako pertsona fisiko edo juridikoei entregatzea, saltzea edo lagatzea, eta hondakin arriskugabeak onartzea baimenetan ageri diren edo lege honen arauetan ezarrita dauden baldintzak bete gabe.

o) Produktuak lantzea, merkaturatzea edo erabiltzea lege honen ondoriozko betebeharrak eta lege hau ekoizlearen erantzukizun hedatutik eratorritako produktuen diseinuaren eta osaeraren arloan garatzeko arauen ondoriozko betebeharrak bete gabe, baldin eta horren ondorioz ez bada nahasmendu larririk sortzen osasun eta higiene publikoan, ingurumenaren babesean edo kontsumitzaileen segurtasunean.

p) Produktuak merkaturatzea ekoizlearen erantzukizun hedatuaren araubideetan ezarrita dauden finantza-betebeharrak edo finantza- eta antolaketa-arloko betebeharrak bete gabe, baldin eta horren ondorioz ez bada nahasmendu larririk sortzen osasun eta higiene publikoan, ingurumenaren babesean edo kontsumitzaileen segurtasunean.

q) Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemen baimen edo komunikazioetan ezarrita dauden baldintzak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ez bada nahasmendu larririk sortzen osasun eta higiene publikoan, ingurumenaren babesean edo kontsumitzaileen segurtasunean.

r) Hondakinei buruzko arauetan aurreikusitako enpresen prebentzio-planak edo hondakinak minimizatzeko planak ez egitea.

s) Arau-hauste oso astunei buruzko 2. apartatuan adierazitako arau-hausteren bat egitea, baina, munta edo garrantzi txikikoa delako, kalifikazio hori merezi ez izatea.

t) Hondakin arriskugabeen hasierako ekoizleak edo beste edozein edukitzailek ez betetzea hondakinen kudeaketari dagokionez 20. artikuluan araututako betebeharrak.

u) Hondakin arriskutsuak ontziratzea eta biltegitratzea indarrean dagoen araudia bete gabe, baldin eta horrek pertsonen osasunerako arrisku larririk ekarri ez badu edo ingurumenean kalte edo degradazio larririk eragin ez badu.

v) Hondakin arriskugabeak biltegitratzea indarrean dagoen araudia bete gabe, baldin eta horrek pertsonen osasunerako arrisku larria ekarri badu edo ingurumenean kalte edo degradazio larria eragin badu.

w) Lege honen 25., 29. eta 30. artikuluetan aipatutako hondakin-frakzioak bereizita biltzeko betebeharra ez betetzea eta, hala badagokio, material desgokietarako ezarriko diren gehieneko ehunekoak ez errespetatzea.

ñ) La entrega, venta o cesión de residuos no peligrosos a personas físicas o jurídicas distintas de las señaladas en esta ley, así como la aceptación de los mismos en condiciones distintas de las que aparezcan en las correspondientes autorizaciones o en las normas establecidas en esta ley.

o) La elaboración, la comercialización o la utilización de productos incumpliendo las obligaciones que deriven de esta ley y de sus normas de desarrollo en materia de diseño y composición de los productos derivadas de la responsabilidad ampliada del productor siempre que no se perturbe gravemente la salud e higiene públicas, la protección del medio ambiente o la seguridad de los consumidores.

p) La comercialización de productos incumpliendo las obligaciones financieras o financieras y organizativas establecidas en los regímenes de responsabilidad ampliada del productor, siempre que no se perturbe gravemente la salud e higiene públicas, la protección del medio ambiente o la seguridad de los consumidores.

q) El incumplimiento de las condiciones establecidas en la autorización o comunicación de los sistemas de responsabilidad ampliada del productor, siempre que no se perturbe gravemente la salud e higiene públicas, la protección del medio ambiente o la seguridad de los consumidores.

r) La no elaboración de los planes de minimización de residuos o de los planes empresariales de prevención previstos en las normas de residuos.

s) La comisión de alguna de las infracciones indicadas en el apartado 2 de infracciones muy graves cuando, por su escasa cuantía o entidad, no merezcan esta calificación.

t) El incumplimiento de las obligaciones del productor inicial u otro poseedor de residuos no peligrosos, relativa a la gestión de sus residuos, reguladas en el artículo 20.

u) El envasado y almacenamiento de residuos peligrosos sin cumplir la normativa vigente, siempre que como consecuencia de ello no se haya puesto en peligro grave la salud de las personas o se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente.

v) El almacenamiento de residuos no peligrosos sin cumplir la normativa vigente, siempre que como consecuencia de ello se haya puesto en peligro grave la salud de las personas o se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente.

w) El incumplimiento de la obligación de establecimiento de recogida separada para las fracciones de residuos mencionadas en los artículos 25, 29 y 30, así como el incumplimiento de los porcentajes máximos de impropios que, en su caso, se establezcan.

x) Hondakin arriskugabeak Estatuko lurraldearen barruan lekualdatzea lege honetan eta lege honen erregelamenduzko garapenean ezarritako betebeharrak bete gabe, aurretiazko jakinarazpena bidali gabe —hala dagokionean—, 31.2 artikuluan eskatutako dokumentazioa erantsi gabe edo aurretiazko jakinarazpenaren dokumentuetan edo identifikazio-dokumentuetan jasotako informazioarekin bat etorri gabe.

y) Negoziatzaileen kasuan, eskuratutako hondakin arriskugabeak tratatzeko eragiketa osorik egin dela ziurtatzeko betebeharra ez betetzea.

z) Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemei aplikatu beharreko helburu kuantitatiboak edo kualitatiboak ez betetzea, hondakin-fluxuen araudi espezifikokoak hala ezartzen duenean.

aa) Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboek produktu-ekoizleen finantza-ekarpenak ez erabiltzea ekoizlearen erantzukizun hedatutik eratorritako helburuetarako, baizik eta beste helburu batzuetarako; ekoizleak sistema kolektiboetan sartzeko kontratuak sinatzeko, baldintza gisa jartzea ekoizlearen erantzukizun hedatuaren betebeharrak betetzearekin zerikusia duten alderdi osagarriak finantzatzea; edo sistema kolektiboek ekoizleei zuzenean edo zeharka ezartzea 42.1.c) artikuluan aipatutako borondatezko kostu osagarriak ordaindu behar izatea.

ab) Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemek ez betetzea lege honen IV. tituluko II. kapituluan eta lege hau garatzeko arauetan ezarrita dagoen gutxieneko beste edozein betekizun orokor.

ac) Produktuen Ekoizleen Erregistroan inskribatzeko betebeharrak ez betetzea, eta erregistratutako ekoizlearen identifikazio-zenbakiari buruz edo merkatu nazionalean sartutako produktuei buruz informazioa emateko betebeharrak ez betetzea.

ad) Produktuaren ekoizleek agintaritza eskudunei eta berrerabiltzeko prestatzeko instalazioei konponketari eta desegiteari buruz eman behar dieten informazioa ez ematea edo mugatzea, eta hondakinak behar bezala kudeatzeko gainerako tratamendu-instalazioei ere ez, eta produktuaren ezaugarriei buruz jendeak erraz eskuratzeko moduan eman behar duten informazioa ez ematea edo mugatzea (produktuaren iraunkortasuna, berrerabiltzeko gaitasuna, konpongarritasuna, birziklagarritasuna eta erabilitako material birziklatuak).

4.

x) El traslado de residuos no peligrosos en el interior del territorio del Estado sin cumplir las obligaciones impuestas en esta ley y su desarrollo reglamentario, incluyendo la remisión de la notificación previa cuando proceda, o sin acompañar el traslado con la documentación exigida en el artículo 31.2, o cuando se lleve a cabo el traslado de forma que no se corresponda con la información contenida en los documentos de notificación previa o de identificación.

y) En el caso de los negociantes, el incumplimiento de la obligación de asegurar que se lleve a cabo una operación completa de tratamiento de los residuos no peligrosos que adquiera.

z) El incumplimiento de los objetivos cuantitativos y/o cualitativos aplicables, en su caso, a los sistemas de responsabilidad ampliada del productor, cuando así lo determine la normativa específica de los diferentes flujos de residuos.

aa) La utilización de las contribuciones financieras de los productores del producto por los sistemas colectivos de responsabilidad ampliada del productor, para fines distintos de las obligaciones derivadas de la responsabilidad ampliada del productor, la subordinación de la celebración de contratos de incorporación de los productores a los sistemas colectivos a la aceptación de financiación de aspectos complementarios al cumplimiento de las obligaciones de la responsabilidad ampliada del productor; o la imposición, directa o indirecta, por los sistemas colectivos a los productores, de sufragar costes voluntarios complementarios a que se refiere el artículo 42.1.c).

ab) El incumplimiento de cualquier otro requisito mínimo general establecido en el capítulo II del título IV y en sus normas de desarrollo, por parte de los sistemas de responsabilidad ampliada del productor.

ac) El incumplimiento de las obligaciones de inscripción en el Registro de Productores de productos, así como de las obligaciones de información sobre el número de identificación del productor registrado o de remisión de información sobre productos introducidos en el mercado nacional.

ad) La ausencia o limitación, por parte de los productores del producto, en el suministro de información a las autoridades competentes y a las instalaciones de preparación para la reutilización sobre reparación y desguace y al resto de instalaciones de tratamiento para la correcta gestión de los residuos, así como de información fácilmente accesible al público sobre las características del producto relativas a la durabilidad, capacidad de reutilización, reparabilidad, reciclabilidad y contenido en materiales reciclados.

4.

Lege honen ondorioetarako, hauek dira arau-hauste arinak:

a) Administrazioari aurkeztu behar zaion dokumentazioa berandu entregatzea, aplikatu beharreko araudian, baimenetako akordioetan edo, hala badagokio, komunikazioarekin batera aurkeztu beharreko akordioetan ezarritakoaren arabera.

b) Aurreko apartatueta adierazitako arau-hausteren bat egitea, baina, munta edo garrantzi txikikoa delako, oso astun edo astun gisa kalifikatzea merezi ez izatea.

c) Etxeko eta merkataritzako hondakin arriskugabeak entregatzea, toki-entitateen ordenantzetan ezarritakoa urratuz, 20.3 artikulua arabera.

d) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan, baimenetako akordioetan edo komunikazioaren edukian ezarritakoa urratzea, arau-hauste hori oso astun edo astun gisa tipifikatuta ez dagoenean.

e) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezartzen diren kobrantza-betebeharrak ez betetzea.

5.

Arau-hausteak egiten badira Espainiak bere subiranotasuna, eskubide subiranoak edo jurisdikzioa baliatzen duen zonetako uretan kokatutako itsasontzietatik, plataforma finkoetatik edo beste instalazio batzuetatik hondakinak isuriz, dagokion sektoreko legediarekin bat etorritik ezarriko dira zehapenak.

109. artikulua.

Zehapenak.

1.

Lege honen 108. artikuluan tipifikatuta dauden arau-hausteengatik, zehapen hauetako batzuk edo guztiak ezarriko dira:

a) Arau-hauste oso astunak badira:

1.a Isuna, 100.001 eurotik 3.500.000 eurora bitartekoa; hondakin arriskutsuak edo lurzoru kutsatuak badira, berriz, isuna 600.001 eurotik 3.500.000 eurora bitartekoa izango da.

2.a Lege honetan jasotako jarduerak egiteko desgaiakuntza ezartzea, gutxienez urtebeterako eta gehienez hamar urterako.

3.a Lege honen 108.2 artikulua a), b), e), f), i) eta l) letretan tipifikatutako arau-hausteak eginez gero, instalazioak edo aparatuak aldi baterako ixtea, gutxienez urtebeterako eta gehienez bost urterako, edo behin betiko ixtea, guztiz edo partzialki; halakoetan, langileen eskubideak errespetatuko dira, lan-legedian aurreikusitakoaren arabera.

4.a Lege honen 108.2 artikulua a), b), e), f), g), i), l) eta o) letretan tipifikatutako arau-hausteak eginez gero, baimena errebotatzea edo etetea,

A los efectos de esta ley, se considerarán infracciones leves:

a) El retraso en el suministro de la documentación que haya que proporcionar a la administración de acuerdo con lo establecido por la normativa aplicable, en las estipulaciones contenidas en las autorizaciones o que deba, en su caso, acompañar a la comunicación.

b) La comisión de alguna de las infracciones indicadas en los apartados anteriores cuando, por su escasa cuantía o entidad, no merezcan la calificación de muy graves o graves.

c) La entrega de los residuos domésticos y comerciales no peligrosos contraviniendo lo establecido en las ordenanzas de las entidades locales, de conformidad con el artículo 20.3.

d) Cualquier infracción de lo establecido en esta ley y en sus normas de desarrollo, en las estipulaciones contenidas en las autorizaciones o en el contenido de la comunicación, cuando no esté tipificada como muy grave o grave.

e) El incumplimiento de las obligaciones de cobro establecidas en esta ley y en sus normas de desarrollo.

5.

En el supuesto de las infracciones correspondientes a los vertidos de residuos desde buques, plataformas fijas u otras instalaciones que se encuentren en aguas situadas en zonas en las que España ejerce soberanía, derechos soberanos o jurisdicción, estas serán sancionadas de conformidad con la legislación sectorial correspondiente.

Artículo 109.

Sanciones.

1.

Las infracciones tipificadas en el artículo 108 darán lugar a la imposición de todas o algunas de las siguientes sanciones:

a) En el caso de infracciones muy graves:

1.º Multa desde 100.001 euros hasta 3.500.000 euros, excepto si se trata de residuos peligrosos o suelos contaminados, en cuyo caso la multa será desde 600.001 euros hasta 3.500.000 euros.

2.º Inhabilitación para el ejercicio de cualquiera de las actividades previstas en esta ley por un período de tiempo no inferior a un año ni superior a diez.

3.º En los supuestos de infracciones tipificadas en los párrafos a), b), e), f), i) y l) del artículo 108.2, clausura temporal, por un plazo no inferior a un año ni superior a cinco, o definitiva, total o parcial, de las instalaciones o aparatos, salvaguardándose en estos casos los derechos de los trabajadores de acuerdo con lo previsto en la legislación laboral.

4.º En los supuestos de infracciones tipificadas en los párrafos a), b), e), f), g), i), l) y o), del artículo 108.2, revocación de la autorización o suspensión

gutxienez urtebeterako eta gehienez hamar urterako.

b) Arau-hauste astunak badira:

1.a Isuna, 2.001 eurotik 100.000 eurora bitartekoa; hondakin arriskutsuak edo lurzoru kutsatuak badira, berriz, isuna 20.001 eurotik 600.000 eurora bitartekoa izango da.

2.a Lege honetan jasotako jarduerak egiteko desgaitzea ezartzea, gehienez urtebeterako.

3.a Lege honen 108.3 artikulua a), b), f), h), k), m), n), ñ), q), z), aa) eta ab) letretan tipifikatutako arau-hausteak eginez gero, baimena errebokatzea edo etetea, gehienez urtebeterako.

c) Arau-hauste arinak zehatzeko, gehienez ere 2.000 euroko isuna jarriko da.

Hondakin arriskutsuak edo lurzoru kutsatuak badira, gehienez ere 20.000 eurokoa izango da isuna.

2.

Isunaren zenbatekoa arau-haustea eginez lortutako irabazia baino txikiagoa denean, zehapena handitu egingo da, arau-hausleak lortutako irabazia halako bi izateraino, gehienez, nahiz eta horrek berekin ekarri aurreko apartatuan adierazitako gehienera zehapenak gaitzea.

3.

Lege honen 108.2 artikulua m), n) eta ñ) letretan eta 108.3 artikulua o) eta p) letretan araututako arau-hausteak eginez gero, zehatzeko ahala duen organoak erabaki ahal izango du, zehapen osagarri gisa, salgaiak konfiskatzea, eta, kasu horretan, haien azken destinoa zehaztuko du.

4.

Lege hau ez betetzeagatik arau-hauste astunak edo oso astunak egin dituzten eta horren ondorioz ebazpen irmo bidez zehatu diren pertsona fisiko edo juridikoen ezin izango dute jaso zehapena ezartzeko eskumena duen administrazio publikoaren dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik, harik eta zehapena bete arte eta, hala badagokio, ingurumen-kalteak eta eragindako galerak konpontzeko eta ordaintzeko neurriak bete arte.

5.

Artikulu honek xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, arau-hauste oso astuna egiteagatik zehapen irmo bat ezartzeak berekin ekarriko du kontratatutako debekua, zeina Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71.1.b) artikuluan ezarria baitago —edo, hala badagokio, hura ordeztuko duen arauan ezarria egongo baita—; orobat, berekin ekarriko du arau-haustea egiteko erabili den operadore-, garraiolari- edo agente-titulua edo hondakin-kudeatzailearen titulua kentzea.

de la misma por un tiempo no inferior a un año ni superior a diez.

b) En el caso de infracciones graves:

1.º Multa desde 2.001 euros hasta 100.000 euros excepto si se trata de residuos peligrosos o suelos contaminados, en cuyo caso la multa será desde 20.001 euros hasta 600.000 euros.

2.º Inhabilitación para el ejercicio de cualquiera de las actividades previstas en esta ley por un período de tiempo inferior a un año.

3.º En los supuestos de infracciones tipificadas en los párrafos a), b), f), h), k), m), n), ñ), q), z), aa), y ab) del artículo 108.3, revocación de la autorización o suspensión de la misma por un tiempo de hasta un año.

c) Las infracciones leves se sancionarán con una multa de hasta 2.000 euros.

Si se trata de residuos peligrosos o suelos contaminados esta será de hasta 20.000 euros.

2.

Cuando la cuantía de la multa resultare inferior al beneficio obtenido por la comisión de la infracción, la sanción será aumentada, como máximo, hasta el doble del importe del beneficio obtenido por el infractor, aunque ello suponga superar las sanciones máximas previstas en el apartado anterior.

3.

En los supuestos de las infracciones reguladas en los párrafos m), n) y ñ) del artículo 108.2 y los párrafos o) y p) del artículo 108.3, el órgano que ejerza la potestad sancionadora podrá acordar también, como sanción accesoria, el decomiso de las mercancías, en cuyo caso determinará su destino final.

4.

Las personas físicas o jurídicas que hayan sido sancionadas por infracciones graves o muy graves mediante resolución firme derivadas del incumplimiento de esta ley no podrán obtener subvenciones ni otro tipo de ayudas de la administración pública competente para la imposición de la sanción hasta haber cumplido la misma y, en su caso, haber ejecutado las medidas de reparación e indemnización de los daños ambientales y los perjuicios causados.

5.

Sin perjuicio de lo dispuesto en este artículo, la imposición de una sanción con carácter firme por la comisión de infracción muy grave conllevará la prohibición de contratar establecida en el artículo 71.1.b) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público o norma que, en su caso, la sustituya, así como la retirada del título de operador, transportista, agente o gestor de residuos con el que se haya cometido la infracción.

110. artikulua.

Zehapenak mailakatzea.

Administrazio publikoen ardura izango da ezarriko den zehapena ongi egokitzea arau-haustearen egitateari. Horretarako, alderdi hauek hartuko dituzte kontuan, bereziki: arau-haustea zer ondorio dakartzan eta zer garrantzi duen pertsonen osasunari eta segurtasunari, ingurumenari eta lege honek babestutako ondasunei dagokienez; erantzulearen inguruabarrak, intenzionalitate-maila, parte-hartzea eta etekinak eta berrerorlea den ala ez —urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izanagatik, administrazio-bidean hala deklaratu denean ebazpen irmo baten bidez—; jokaera arau-hausleak jarraitzea edo irautea, eta eragindako kalteen edo degradazioen itzulezintasuna.

Zehapenak zuzen mailakatze aldera, diruzko zehapenak ezartzen direnean, bereziki zainduko da arau-hauslearentzat ez izatea onuragarriagoa tipifikatutako arau-haustea egitea urratutako arauak betetzea baino.

111. artikulua.

Zehatzeko ahala.

1. Administrazio publikoek hondakinen arloko zehapen-ahala egikarrituko dute, 12. artikuluan ezarritako eskumen-banaketaren arabera.

2. Zehatzeko ahala Estatuaren Administrazio Orokorri dagokionean, hauek egikarrituko dute:

a) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak, arau-haustea arina bada.

b) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren titularrak, arau-haustea astuna bada.

c) Ministro Kontseiluak, arau-haustea oso astuna bada.

Halakoetan, Ingurumen Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak izango du zehapen-prozedurak hasteko eskumena.

3. Lege honen 12.5 artikuluekin bat etorritik, toki-entitateek bildu eta kudeatu behar dituzten hondakinak kontrolik gabe botata uzten, isurtzen edo ezabatzen badira, edota toki-entitateen ordenantzetan aurreikusten diren baldintzak bete gabe entregatzen badira, zehatzeko ahala toki-entitateena izango da.

112. artikulua.

Artículo 110.

Graduación de las sanciones.

Las administraciones públicas deberán guardar la debida adecuación entre la sanción y el hecho constitutivo de la infracción, considerándose especialmente su repercusión, su trascendencia por lo que respecta a la salud y seguridad de las personas y del medio ambiente o bienes protegidos por esta ley, las circunstancias del responsable, su grado de intencionalidad, participación y beneficio obtenido, la reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme en vía administrativa, la continuidad o persistencia en la conducta infractora, así como la irreversibilidad de los daños o deterioros producidos.

Asimismo, para la correcta graduación de las sanciones, en el caso de sanciones pecuniarias, se tendrá especial consideración a que la comisión de las infracciones tipificadas no debe resultar más beneficioso para el infractor que el cumplimiento de las normas infringidas.

Artículo 111.

Potestad sancionadora.

1. Las administraciones públicas ejercerán la potestad sancionadora en materia de residuos de acuerdo con la distribución de competencias que establece el artículo 12.

2. En los casos en que la potestad sancionadora corresponda a la Administración General del Estado, será ejercida por:

a) La persona titular de la Dirección General de Calidad y Evaluación Ambiental del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico en los supuestos de infracciones leves,

b) la persona titular del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico en los supuestos de infracciones graves y

c) el Consejo de Ministros, en los supuestos de infracciones muy graves.

En estos casos, la iniciación de los correspondientes procedimientos sancionadores será competencia de la persona titular de la Dirección General de Calidad y Evaluación Ambiental.

3. En el supuesto de abandono, vertido o eliminación incontrolados de los residuos cuya recogida y gestión corresponde a las entidades locales de acuerdo con el artículo 12.5, así como en el de su entrega sin cumplir las condiciones previstas en las ordenanzas de las entidades locales, la potestad sancionadora corresponderá a las entidades locales.

Artículo 112.

Prozedura.

1. Agintaritzak eskudunak ebazpen arrazoitu baten bidez ezarriko dituzten zehapenak, espedienteak instruitu ondoren, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluaren, Sektorerik Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren III. kapituluaren eta lege horiek garatzen dituzten arauetan adierazitakoarekin.

Ebazteko epea ez da urtebete baino luzeagoa izango, espedienteak abiarazten den egunetik kontatzen hasita.

2. Zehapen-prozedura hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen bada, dagokion zehapena ezarriko ebatzi ahal izango da prozedura.

3. Atzemandako arau-hausteari dagokion zehapena diruzkoa soilik baldin bada, edo aukera baldin badago diruzko zehapen bat eta diruzkoa ez den beste bat ezartzeko baina bigarrena egokia ez dela justifikatu bada, ustezko erantzuleak ebazpena baino lehenagoko edozein unetan borondatez ordaintzeak amaitu egingo du prozedura, salbu eta aldatutako egoera lehengoratzeari dagokiona edo arau-hausteagatik sortutako kalte eta galeren ordaina erabakitzeari dagokiona.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako kasuetan, zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, kasu bakoitzerako proposatu den zehapenaren gainean, eta murriztapenak elkarrekin bateratu daitezke.

Murriztapen horiek zehaztuta egon behar dute prozedura hasteko jakinarazpenean. Haietaz baliatzeke, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekursoetan atzera edo uko egin beharra dago. Apartatu honetan aurreikusitako murriztapen-ehunekoa handitu ahal izango da erregelamenduz.

5. Salatzailak 108. artikuluan tipifikatutako arau-hauste batean parte hartu bada eta beste arau-hausle batzuk baldin badira, prozedura ebazteko eskumena duen organoak salbuetsi egin ahal izango du salatzaila legokiokeen isuna ordaintzetik edo diruzkoa ez den beste zehapenaren batetik, bera baldin bada prozedura hasteko edo arau-haustea egiaztatzeke frogatutako elementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko

Procedimiento.

1. Las sanciones correspondientes se impondrán por resolución motivada de la autoridad competente, previa instrucción del correspondiente expediente y de acuerdo con lo previsto en el título IV de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el capítulo III del título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en sus normas de desarrollo.

El plazo para resolver no excederá de un año, contado a partir de la fecha de incoación del expediente.

2. Iniciado un procedimiento sancionador, si el infractor reconoce su responsabilidad, se podrá resolver el procedimiento con la imposición de la sanción que proceda.

3. Cuando la sanción correspondiente a la infracción apreciada tenga únicamente carácter pecuniario o bien quepa imponer una sanción pecuniaria y otra de carácter no pecuniario pero se haya justificado la improcedencia de la segunda, el pago voluntario por el presunto responsable, en cualquier momento anterior a la resolución, implicará la terminación del procedimiento, salvo en lo relativo a la reposición de la situación alterada o a la determinación de la indemnización por los daños y perjuicios causados por la comisión de la infracción.

4. En los casos contemplados en los apartados 2 y 3, cuando la sanción tenga únicamente carácter pecuniario, el órgano competente para resolver el procedimiento aplicará reducciones de, al menos, el veinte por ciento sobre el importe de la sanción propuesta en cada uno de los casos, pudiendo ser estas reducciones acumulables entre sí.

Las citadas reducciones, deberán estar determinadas en la notificación de iniciación del procedimiento y su efectividad estará condicionada al desistimiento o renuncia de cualquier acción o recurso en vía administrativa contra la sanción.

El porcentaje de reducción previsto en este apartado podrá ser incrementado reglamentariamente.

5. Cuando el denunciante haya participado en la comisión de una infracción tipificada en el artículo 108 y existan otros infractores, el órgano competente para resolver el procedimiento podrá eximir al denunciante del pago de la multa que le correspondería u otro tipo de sanción de carácter no pecuniario, cuando sea el primero en aportar elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, siempre y cuando en el momento de aportarse aquellos no se

unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea konpontzen bada.

Halaber, ebazteko eskumena duen organoak gutxitu egin ahal izango du legokiokoen isunaren zenbatekoa edo, hala badagokio, diruzkoa ez den zehapena, baldin eta, aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez delarik, salatzailleak froga-elementu batzuk aurkezten baditu lehendik daudenen aldean balio erantsi adierazgarria dutenak.

Bi kasuetan, beharrezkoa da salatzailleak arau-haustean parte hartzeari utzi izana eta salaketaren xedearekin lotutako froga-elementurik ez desegin izana.

113. artikulua.

Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste arinak urtebetera preskribatuko dira; astunak, hiru urtera, eta oso astunak, berriz, bost urtera.
2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea.
3. Arau-hauste jarraitu edo iraunkorren kasuan, jarduera amaitzen den unean edo arau-haustea burutzen duen azken egintza amaitzen den unean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea.

Arau-haustea eragin duten egitateak edo jarduerak ezezagunak baldin badira ageriko arrastorik utzi ez dutelako, akats horiek atzeman diren unetik zenbatuko da preskripzio-epea.

4. Preskripzioa geldiarazi egingo da zehapen-prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela; preskripzio-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta zehapen-espeditatea hilabete baino gehiagoz geldiarazita egon bada ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.
5. Arau-hauste arinak egiteagatik ezarritako zehapenak urtebetera preskribatuko dira, arau-hauste astunengatik ezarritakoak hiru urtera, eta arau-hauste oso astunengatik ezarritakoak, berriz, bost urtera.
6. Zehapenen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena betearazi ahal den egunaren edo ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkezteko epea amaitu den egunaren biharamunetik.
7. Preskripzioa geldiarazi egingo da betearazpen-prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela; preskripzio-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura hilabete baino gehiagoz geldiarazita

disponga de elementos suficientes para ordenar la misma y se repare el perjuicio causado.

Asimismo, el órgano competente para resolver podrá reducir el importe del pago de la multa que le correspondería o, en su caso, la sanción de carácter no pecuniario, cuando no cumpliéndose alguna de las condiciones anteriores, el denunciante facilite elementos de prueba que aporten un valor añadido significativo respecto de aquellos de los que se disponga.

En ambos casos será necesario que el denunciante cese en la participación de la infracción y no haya destruido elementos de prueba relacionados con el objeto de la denuncia.

Artículo 113.

Prescripción de las infracciones y sanciones.

1. Las infracciones leves prescribirán al año, las graves a los tres años y las muy graves a los cinco años.
2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.
3. En los supuestos de infracciones continuadas o permanentes, el plazo de prescripción comenzará a contar desde el momento de la finalización de la actividad o del último acto con el que la infracción se consuma.
4. En el caso de que los hechos o actividades constitutivos de infracción fueran desconocidos por carecer de signos externos, dicho plazo se computará desde que estos se manifiesten.
5. Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento sancionador, reanudándose el plazo de prescripción si el expediente sancionador estuviera paralizado durante más de un mes por causa no imputable al presunto responsable.
6. Las sanciones impuestas por la comisión de infracciones leves prescribirán al año, las impuestas por infracciones graves a los tres años y las impuestas por infracciones muy graves a los cinco años.
7. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que sea ejecutable la resolución por la que se impone la sanción o haya transcurrido el plazo para recurrirla.
8. Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si aquel

egon bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

114. artikulua.

Zehapenak pilatzea.

1.

Ezingo dira zehatu zehapen penal edo administratiboa ezarri zaien egitateak, ikusten bada subjektua, egitatea eta oinarria berberak direla.

2.

Ustezko egitate arau-hauslea arau-hauste penala izan badaiteke, Fiskaltzari helaraziko zaio erruduntasun-testigantza. Horrenbestez, zehapen-prozeduraren izapideak etenda geratuko dira, harik eta agintaritzak judizialak ebazpen irmoa eman eta prozedura amaitu arte, edo jarduketak largetsi edo artxibatu arte, edota Fiskaltzak espedienteak itzuli arte.

Horretarako, espedienteak modu azkar, praktikoa eta efikazean itzultzeko behar diren komunikazio-bitartekoak bideratu beharko dira.

Arau-hauste penalik atzeman ez bada, administrazio-organoren eskudunak zehapen-espedientearekin jarraituko du.

Ebazpen judizial irmoan frogatutzat emandako egitateak lotesleak izango dira administrazio-organorentzat.

3.

Lege honen eta aplikatu behar diren beste lege batzuen arabera, egitate bakar batek bi arau-hauste edo gehiago eragiten baditu, astuntasun handieneko zehapena ezarriko zaio arau-hausleari.

115. artikulua.

Behin-behineko neurriak.

1.

Zehapen-prozedura abiarazi ondoren, prozedura ebazteko organoren eskudunak, bere ekimenez edo instrukzio-egileak proposatuta, beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, edozein unetan, erabaki arrazoitu baten bidez, batetik, emango den ebazpenaren efikazia ziurtatzeko eta, bestetik, ingurumenari eta gizakien osasunari kalteak edo arriskuak saihesteko.

Neurri horiek ustezko arau-hausteen izaera eta astuntasunarekiko proportzionalak izango dira, eta honelakoak izan daitezke:

a) Kaltea sortzen jarraitzea galaraziko duten neurri zuzentzaileak, segurtasunekoak edo kontrolkoak jartzea.

b) Aparatuak, ekipamenduak edo ibilgailuak zigilatzea.

c) Establezimendua aldi baterako ixtea, partzialki edo osorik.

d) Enpresak jardueran aritzeko duen baimena aldi baterako etetea.

2.

está paralizado durante más de un mes por causa no imputable al infractor.

Artículo 114.

Concurrencia de sanciones.

1.

No podrán sancionarse los hechos que hayan sido sancionados penal o administrativamente, en los casos en que se aprecie identidad de sujeto, hecho y fundamento.

2.

Cuando el supuesto hecho infractor pudiera ser constitutivo de infracción penal, se dará traslado del tanto de culpa al Ministerio Fiscal, suspendiéndose la tramitación del procedimiento sancionador mientras la autoridad judicial no hubiera dictado resolución firme que ponga fin al procedimiento o tenga lugar el sobreseimiento o el archivo de las actuaciones o se produzca la devolución del expediente por el Ministerio Fiscal.

A tal efecto, deberán arbitrarse los medios de comunicación necesarios para que esa devolución se lleve a efecto de manera rápida, práctica y eficaz. De no haberse apreciado la existencia de infracción penal, el órgano administrativo competente continuará el expediente sancionador.

Los hechos declarados probados en la resolución judicial firme vincularán al órgano administrativo.

3.

Cuando un solo hecho constituya dos o más infracciones con arreglo a esta ley, y a otras leyes que fueran de aplicación, se impondrá al sujeto infractor la sanción de mayor gravedad.

Artículo 115.

Medidas de carácter provisional.

1.

Iniciado el procedimiento sancionador, el titular del órgano competente para resolverlo, por propia iniciativa o a propuesta del instructor, podrá adoptar en cualquier momento, mediante acuerdo motivado, las medidas de carácter provisional que estime necesarias para asegurar la eficacia de la resolución que pudiera recaer y evitar el mantenimiento de los riesgos o daños para la salud humana y el medio ambiente.

Dichas medidas deberán ser proporcionadas a la naturaleza y gravedad de las presuntas infracciones, y podrán consistir en:

a) Medidas de corrección, seguridad o control que impidan la continuidad en la producción del daño,

b) precintado de aparatos, equipos o vehículos,

c) clausura temporal, parcial o total del establecimiento y

d) suspensión temporal de la autorización para el ejercicio de la actividad por la empresa.

2.

Helburu berberarekin, larrialdi-kasuetan eta inplikaturako interesak behin-behinean babesteko, organo eskudunak ezinbesteko behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, prozedura hasi aurretik, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 56.4 artikuluan ezarritako mugak eta baldintzak beteta, bai eta aplikatu beharreko gainerako arauak ezarritakoak ere, eta ezingo da ezerein kasutan hamabost eguneko epea gainditu.

Neurri horien artean egon daiteke baimena etetea eta komunikaturako jarduerak egitea debekatzea, baldin eta agintaritzak eskudunak egiaztatzen badu enpresa batek ez dituela betetzen emandako baimenean edo aurkeztutako komunikazioan ezarritako betekizunak.

Salbuespen gisa, agintaritzak agenteek hartu ahal izango dituzte neurri horiek, gizakien osasunari edo ingurumenari kalte larririk ez eragiteko berehala jardun behar denean; halakoetan, agenteek lehenbailehen eman beharko diote neurrien berri organo eskudunari, eta neurrien eragindako aurreko paragrafoan aurreikusitako mugen mende geratuko da.

3.

Ezin izango da behin-behineko neurriak hartu alde aurretik interesdunei entzuteko izapidea bideratu gabe, salbu eta larrialdi-arrazoak direla-eta neurri horiek berehala hartzea komeni bada, ingurumenari edo gizakien osasunari kalte edo arrisku larriak eragin dakizkiekeelako, edo lege honetan araututako jardura bat egin delako nahitaezko baimenik izan gabe edo hura iraungita edo etenda edukita; halakoetan, ezarritako behin-behineko neurria berrikusi edo berretsi egin beharko da, interesdunei entzun ondoren.

Apartatu honetan aurreikusitako entzunaldi-izapidean, gehienez ere hamabost eguneko epea emango zaie interesdunei, egokituz jotzen dituzten alegazioak, dokumentuak eta informazioa eman ditzaten.

4.

Artikulu honetan zehaztu diren behin-behineko neurriak independenteak izango dira legitimazioa duten pertsonen erantzukizun-akzioak egikaritzuz eskatu dituzten behin-behineko edo kautelazko neurriak buruz epaileek eta auzitegiek onar ditzaketan ebazpenekiko.

116. artikulua.

Kalte konpontzea eta kalte-ordaina ematea.

1.

Ezar daitekeen zehapena alde batera utzi gabe, arau-hauslea behartuta egongo da eraldatutako egoera lehengoratzera, bai eta eragindako kalte-galerak ordaintzera ere. Kalte-galerak organo eskudunak zehaztu ahal izango ditu, eta, kasu

Con la misma finalidad, el órgano competente, en los casos de urgencia y para la protección provisional de los intereses implicados, podrá adoptar las medidas provisionales imprescindibles con anterioridad a la iniciación del procedimiento, con los límites y condiciones establecidos en el artículo 56.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas, y demás normativa aplicable, sin que puedan en ningún caso sobrepasar el plazo de quince días.

Estas medidas podrán incluir la suspensión de la autorización y la prohibición del ejercicio de las actividades comunicadas cuando la autoridad competente compruebe que una empresa no cumple con los requisitos establecidos en la autorización concedida o en la comunicación presentada.

Excepcionalmente, estas medidas podrán adoptarse por los agentes de la autoridad cuando sea precisa una actuación inmediata para evitar un daño grave para la salud humana o el medio ambiente, debiendo dar cuenta al órgano competente a la mayor brevedad y quedando la eficacia de tales medidas sujeta a los límites previstos en el párrafo anterior.

3.

No se podrá adoptar ninguna medida provisional sin el trámite de audiencia previa a los interesados, salvo que concurren razones de urgencia que aconsejen su adopción inmediata, basadas en la producción de un daño grave para la salud humana o el medio ambiente, o que se trate del ejercicio de una actividad regulada en esta ley sin la preceptiva autorización o con ella caducada o suspendida, en cuyo caso la medida provisional impuesta deberá ser revisada o ratificada tras la audiencia a los interesados.

En el trámite de audiencia previsto en este apartado se dará a los interesados un plazo máximo de quince días para que puedan aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estimen convenientes.

4.

Las medidas provisionales descritas en este artículo serán independientes de las resoluciones que sobre la solicitud de adopción de medidas provisionales o cautelares puedan adoptar los Jueces y Tribunales debidas al ejercicio de acciones de responsabilidad por personas legitimadas.

Artículo 116.

Reparación del daño e indemnización.

1.

Sin perjuicio de la sanción que se pudiera imponer, el infractor quedará obligado a la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario, así como a la indemnización de los daños y perjuicios causados, que podrán ser determinados

horretan, haien berri emango zaio arau-hausleari, horretarako ezarriko den epean ordain ditzan.

2.

Ingurumen-kalteak egon badira, arau-hausleak konpondu egin beharko ditu, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen arabera.

Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legeak xedatutako konpontze-metodologia aplikatu ahal izango zaie, halaber, kalteak konpontzeko gainerako kasuei, betiere bederatzigarren xedapen gehigarrian ezartzen diren baldintzen arabera.

117. artikulua.

Hertsapen-isunak eta betearazpen subsidiarioa.

1.

Arau-hausleak ez badu dagokiona lehengorutzen edo ez baditu kalteak ordaintzen, 116. artikuluan ezarritakoaren arabera eta errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, administrazio instrukzio-egileak erabaki ahal izango du hertsapen-isunak edo betearazpen subsidiarioa ezartzea.

Hertsapen-isun bakoitzaren zenbatekoak ez du inoiz gaudituko arau-hauste bakoitzarentzat zehaztutako isunaren herena.

Era berean, kasu horietan eta lurzoru kutsatuak deskontaminatzeko eta berreskuratzeko eragiketarik egiten ez direnean, betearaztea subsidiarioki egin ahal izango da arau-hauslearen kontura.

2.

Hertsapen-isunak ipiniko badira, ezinbestekoa izango da errekerimenduan adieraztea zer epe dagoen betebeharra betetzeko eta zenbatekoa izango den ezarri ahal den isuna.

Nolanahi ere, betebeharra konplitu ahal izateko bezain luzeak izango dira epe horiek.

Behin hertsapen-isuna ezarri ondoren, hura eragin duen ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, aldizkako hertsapen-isun gehiago jarri ahal izango dira agindutakoa betetzeko moduko epeetan.

Hertsapen-isunak independenteak dira eta bateragarriak zehapen gisa ezar daitezkeen isunekin.

3.

Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen 47. artikulua arabera arautuko da ingurumenaren arloko kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak aplikatzera behartzen duten ebazpenen nahitaezko betearazpena.

118. artikulua.

Publiko egitea.

Zehatzeko ahala egikaritzen duten organoek, interes publikoko arrazoiak daudela uste izanez gero, erabaki ahal izango dute argitara daitezela

por el órgano competente, debiendo, en este caso, comunicarse al infractor para su satisfacción en el plazo que al efecto se determine.

2.

En los casos de daños medioambientales, el infractor estará obligado a la reparación en los términos de la Ley 26/2007, de 23 de octubre, de Responsabilidad Medioambiental.

La metodología de reparación prevista en la Ley 26/2007, de 23 de octubre, de Responsabilidad Medioambiental, podrá aplicarse también en los demás supuestos de reparación de daños en los términos previstos en su Disposición adicional novena.

Artículo 117.

Multas coercitivas y ejecución subsidiaria.

1.

Si los infractores no procedieran a la restauración o indemnización, de acuerdo con lo establecido en el artículo 116, y una vez transcurrido el plazo señalado en el requerimiento correspondiente, la administración instructora podrá acordar la imposición de multas coercitivas o la ejecución subsidiaria.

La cuantía de cada una de las multas coercitivas no superará, en su caso, un tercio de la multa fijada por infracción cometida.

Asimismo, en estos casos y en el supuesto de que no se realicen las operaciones de descontaminación y recuperación de suelos contaminados, podrá procederse a la ejecución subsidiaria por cuenta del infractor y a su costa.

2.

La imposición de multas coercitivas exigirá que en el requerimiento se indique el plazo de que se dispone para el cumplimiento de la obligación y la cuantía de la multa que puede ser impuesta.

En todo caso, el plazo deberá ser suficiente para cumplir la obligación.

En el caso de que, una vez impuesta la multa coercitiva, se mantenga el incumplimiento que la ha motivado, podrá reiterarse por lapsos de tiempo que sean suficientes para cumplir lo ordenado.

Las multas coercitivas son independientes y compatibles con las que se puedan imponer en concepto de sanción.

3.

La ejecución forzosa de resoluciones que obliguen a realizar las medidas de prevención, de evitación y de reparación de daños medioambientales, serán las reguladas por el artículo 47 de la Ley 26/2007, de 23 de octubre, de Responsabilidad Medioambiental.

Artículo 118.

Publicidad.

Los órganos que ejerzan la potestad sancionadora podrán acordar, cuando estimen que existen razones de interés público, la publicación en el

arau-hauste astunak eta oso astunak egiteagatik ezarritako zehapenak eta erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-abizenak edo izen soziala dagokion aldizkari ofizialean eta egoki iriztitako komunikabide sozialetan, behin zehapen horiek administrazio-bidean irmoak direnean.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Onura publikoko eta gizartearen intereseko deklarazioa.

Hondakinak biltegitzeko, balorizatzeko eta ezabatzeko instalazioak jartzea edo handitzea onura publikoko eta gizartearen intereseko jotzen da, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriaren ondorioetarako.

Bigarren xedapen gehigarria.

Plastikozko poltsak arautzea.

1.

Administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte plastikozko poltsen hondakinak prebenitzeko, murrizteko eta kudeatzeko sistema jasagarrienak eta haien alternatibak sustatzeko, administrazioari kontsumitzaile gisa dagozkion ekintzak barne (erosketa publikoen bidez), lege honetan eta Plastikozko poltsen kontsumoa murrizteari eta Ekoizleen Erregistroa sortzeari buruzko maiatzaren 18ko 293/2018 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.

Xedapen honetan aipatutako bilgarriak bilgarri-hondakin bihurtzen direnean, edukitzaileek kasuan-kasuan ezarritako sistemen arabera entregatu beharko dituzte.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Balear Uharteetako, Kanarietako, Ceutako eta Melillako hondakinak.

1.

Lege hau indarrean jartzen denean, Estatuaren Administrazio Orokorra neurriak ezarriko ditu Balear Uharteetan, Kanarietan, Ceutan eta Melillan sortutako hondakinak balorizatzeko dakarren kostu gehigarria finantzatzeko, baldin eta hondakin horiek ezin izan badira in situ balorizatu eta penintsulara edo beste uharte batera itsasoz garraiatzen badira. Finantzaketa horrek baldintza izango du hondakinak prebenitzeko programak eta hondakinak kudeatzeko lege honetan ezarritakoaren arabera planak izatea indarrean, garraiatu beharreko kantitatea minimizatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen ari direla egiaztatzeko.

2.

Neurri horiek ez dira aplikatuko, ordea, ekoizlearen erantzukizun hedatuaren ondoriozko betebeharrak

diario oficial correspondiente y a través de los medios de comunicación social que considere oportunos de las sanciones impuestas por la comisión de infracciones graves y muy graves, así como los nombres y apellidos o razón social de las personas físicas o jurídicas responsables, una vez que dichas sanciones hubieran adquirido el carácter de firmes en vía administrativa.

Disposición adicional primera.

Declaración de utilidad pública e interés social.

Se declara de utilidad pública e interés social, a efectos de la legislación de expropiación forzosa, el establecimiento o ampliación de instalaciones de almacenamiento, valorización y eliminación de residuos.

Disposición adicional segunda.

Regulación de las bolsas de plástico.

1.

Las administraciones públicas adoptarán las medidas necesarias para promover los sistemas más sostenibles de prevención, reducción y gestión de los residuos de bolsas de plástico y sus alternativas, incluidas las acciones correspondientes a la condición de la administración como consumidor, a través de las compras públicas, de conformidad con lo establecido en esta ley y en el Real Decreto 293/2018, de 18 de mayo, sobre reducción del consumo de bolsas de plástico y por el que se crea el Registro de Productores.

2.

Cuando los envases mencionados en esta disposición pasen a ser residuos de envases sus poseedores deberán entregarlos de acuerdo con los sistemas establecidos en cada caso.

Disposición adicional tercera.

Residuos de las Illes Balears, Canarias, Ceuta y Melilla.

1.

A la entrada en vigor de esta ley la Administración General del Estado establecerá medidas para financiar el coste adicional que implica la valorización de los residuos generados en las Illes Balears, Canarias, Ceuta y Melilla que no hayan podido valorizarse in situ y que sean transportados por mar a la Península o a otra isla.

Esta financiación estará condicionada a la existencia de programas de prevención y planes de gestión de residuos vigentes, adoptados conforme a lo establecido en esta ley, que demuestre que se están adoptando las medidas necesarias para minimizar la cantidad objeto de transporte.

2.

Las anteriores medidas no alcanzarán al traslado a la península de aquellos flujos de residuos a los que les resulten de aplicación las obligaciones que

dituzten hondakin-fluxuak penintsulara eramaten direnean.

Laugarren xedapen gehigarria.

Defentsa nazionala arautzen duten legeak aplikatzea.

1.

a) Instalazioaren jabea den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, haren IFZ barne.

b) Hondakinak tratatzeko eragiketak egiteko instalazioen kokapena, posta-helbidearen eta koordinatu geografikoen bidez identifikatuta, Espainian Erreferentzia Ofizialeko Sistema Geodesikoa arautzen duen uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuaren arabera definitutako moduan.

c) Instalazioaren proiektuaren aurkezpena: instalazioen, haien ezaugarri teknikoaren eta instalazioari edo tratamendu-eragiketak egingo diren lekuari buruzko beste edozein motatako ezaugarrien deskribapen xehatuarekin.

d) Trata daitezkeen hondakin motak eta kantitateak adieraziko dira, tratamendu-eragiketa mota bakoitza LER kodeen bidez identifikatuta.

Hondakin arrisksuei dagokienez, arrisku-ezaugarri buruzko informazioa.

e) Instalazioan hondakinak tratatzeko egin nahi diren jardueren deskribapen xehatua, egin nahi diren eragiketa motak adierazita, lege honen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodetzearen arabera.

f) Aurreikusitako tratamendu-eragiketen ondorioz sortuko bide diren hondakin motak eta kantitateak, LER kodeen bidez identifikatuak.

g) Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren aplikazio-eremutik kanpo dauden instalazioek, baimen-eskaerarekin batera, ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu beharko dute, ingurumen-inpaktuaren adierazpenari buruzko estatuko edo autonomia-erkidegoko araudiak hala eskatzen badu.

h) Hondakinen araudiaren arabera eska daitezkeen fidantzari, aseguruari edo finantza-berme baliokideari aurre egiteko baliabide ekonomikoak badituela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena.

2.

Hondakinak bildu eta tratatzeko eragiketak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoen baimen-eskaeraren edukia:

a) Hondakinak tratatzeko jarduera egiteko baimena eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, IFZ barne.

ANEXO IX

Contenido de la solicitud de autorización de las instalaciones de recogida y tratamiento de residuos y de los gestores de recogida y tratamiento de residuos

1.

Contenido de la solicitud de autorización de las instalaciones de recogida y de tratamiento de residuos:

a) Identificación de la persona física o jurídica propietaria de la instalación, incluyendo su NIF.

b) Ubicación de las instalaciones donde se llevarán a cabo las operaciones de tratamiento de residuos, identificadas mediante dirección postal y coordenadas geográficas, definidas conforme al Real Decreto 1071/2007, de 27 de julio, por el que se regula el sistema geodésico de referencia oficial en España.

c) Presentación del proyecto de la instalación con una descripción detallada de las instalaciones, de sus características técnicas y de cualquier otro tipo aplicables a la instalación o al lugar donde se van a llevar a cabo las operaciones de tratamiento.

d) Tipos y cantidades de residuos que puedan tratarse identificados mediante los códigos LER para cada tipo de operación de tratamiento.

En relación con los residuos peligrosos, información sobre las características de peligrosidad.

e) Descripción detallada de las actividades de tratamiento de residuos que pretende llevarse a cabo en la instalación, indicando los tipos de operaciones previstas a realizar, conforme a la codificación establecida en los anexos II y III de esta ley.

f) Tipos y cantidades de residuos identificados mediante los códigos LER que se prevé producir como consecuencia de las operaciones de tratamiento previstas.

g) Las instalaciones no incluidas en el ámbito de aplicación del texto refundido de la Ley de prevención y control integrados de la contaminación, deberán presentar, junto con la solicitud de autorización, el estudio de impacto ambiental cuando así lo exija la normativa estatal o autonómica sobre declaración de impacto ambiental.

h) Declaración responsable de disponer de los medios económicos para hacer frente a la fianza, seguro o garantía financiera equivalente, exigibles de acuerdo con la normativa de residuos.

2.

Contenido de la solicitud de autorización de las personas físicas o jurídicas que realizan operaciones de recogida y tratamiento de residuos:

a) Identificación de la persona física o jurídica que solicita llevar a cabo la actividad de tratamiento de residuos, incluyendo su NIF.

b) Tratatu nahi diren hondakin motak eta kantitateak, tratamendu-eragiketa mota bakoitza LER kodeen bidez identifikatuta, eta beharrezkoa bada, eragiketaka bereizita.

Hondakin arriskutsuei dagokienez, arrisku-ezaugarri buruzko informazioa.

c) Hondakinak tratatzeko egin nahi diren jardueren deskribapen xehatua, egin nahi diren eragiketa motak adierazita, lege honen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodetzearen arabera.

d) Aurreikusitako tratamendu-eragiketen ondorioz sortuko bide diren hondakin motak eta kantitateak, LER kodeen bidez identifikatuak.

e) Tratamendu-eragiketa mota bakoitzerako erabiliko diren metodoak, segurtasun- eta zuhertasun-neurriak eta aurreikusitako gainbegiratze- eta kontrol-eragiketak.

f) Instalazioan aurreikusitako tratamendu-eragiketak egiteko gaitasun teknikoa, besteak beste, eskuragarri dauden ekipoak, bitartekoak eta langileak zehaztuta.

g) Hondakinen araudiaren arabera eska daitekeen fidantzari, aseguruari edo finantza-berme baliokideari aurre egiteko baliabide ekonomikoak badituela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena.

b) Tipos y cantidades de residuos que se pretende tratar identificados mediante los códigos LER y si es necesario para cada tipo de operación.

En relación con los residuos peligrosos, información sobre las características de peligrosidad.

c) Descripción detallada de las actividades de tratamiento de residuos que pretende realizar indicando los tipos de operaciones previstas a realizar conforme a la codificación establecida en los anexos II y III de esta ley.

d) Tipos y cantidades de residuos identificados mediante los códigos LER que se prevé producir como consecuencia de las operaciones de tratamiento previstas.

e) Métodos que se utilizarán para cada tipo de operación de tratamiento, las medidas de seguridad y precaución y las operaciones de supervisión y control previstas.

f) Capacidad técnica para realizar las operaciones de tratamiento previstas en la instalación, con detalle, entre otros, de los equipos, medios y personal disponibles.

g) Declaración responsable de disponer de los medios económicos para hacer frente a los costes de la fianza, seguro o garantía financiera equivalente, exigibles de acuerdo con la normativa de residuos.

X. ERANSKINA

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko instalazioen eta hondakinak biltzeko eta tratatzeko kudeatzaileen baimenaren edukia

1.

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko eragiketarako instalazioen baimenak eduki hau izango du:

a) Instalazioaren jabea den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, IFZ barne, eta identifikazio-zenbakia (NIMA), hala dagokionean.

b) Hondakinak tratatzeko eragiketak egingo diren instalazioen kokapena; koordinatu geografikoen bidez identifikatuko dira instalazioak, uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuaren arabera.

c) Tratatze baimentzen diren hondakin motak eta kantitateak, LER kodeen bidez identifikatuak, 6. artikuluan jasotakoaren arabera, baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzerako.

Hondakin arriskutsuei dagokienez, arrisku-ezaugarri buruzko informazioa.

d) Baimendutako tratamendu-eragiketak, II. eta III. eranskinetan jasotako kodeen arabera identifikatuak.

e) Instalazioan egiten den eragiketa bakoitzari dagokionez, hondakinak tratatzeko dagoen gehieneko ahalmena.

f) Tratamendu-eragiketen ondorioz sor daitezkeen hondakin motak eta kantitateak, LER kodeen bidez identifikatuak.

g) Instalazioak ixteari eta ondorengo mantentze-lanei dagokienez beharrezkoak izan daitezkeen xedapenak.

h) Baimenaren data eta indarraldia.

i) Hondakinak tratatzeko instalazioaren beste betekizun batzuk, hala nola hondakinen araudiaren arabera eska daitezkeen fidantzak, aseguruak edo finantza-bermeak izatea.

2.

Hondakinak bildu eta tratatzeko eragiketak egiteko pertsona fisiko edo juridikoen baimenak eduki hau izango du:

a) Hondakinak biltzeko edo tratatzeko jarduerarako baimena duen pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, helbidea edo egoitza soziala eta IFZ barne.

b) Biltzeko edo tratamendu-eragiketak egiteko baimentzen diren hondakin motak, LER kodeen bidez identifikatuak.

c) Baimendutako tratamendu-eragiketak, II. eta III. eranskinetan jasotako kodeen arabera identifikatuak; jasota geratu behar da, eragiketa bakoitzerako, zein diren baimendutako hondakinen LER kodeak.

ANEXO X

Contenido de la autorización de las instalaciones de recogida y tratamiento de residuos y de los gestores de recogida y tratamiento de residuos

1.

Contenido de la autorización de las instalaciones donde se realicen operaciones de recogida y tratamiento de residuos:

a) Identificación de la persona física o jurídica propietaria de la instalación, incluyendo su NIF, y número de identificación (NIMA), cuando proceda.

b) Ubicación de las instalaciones donde se llevarán a cabo las operaciones de tratamiento de residuos, identificadas mediante coordenadas geográficas, definidas conforme al Real Decreto 1071/2007, de 27 de julio.

c) Tipos y cantidades de residuos cuyo tratamiento se autoriza identificados mediante los códigos LER, de conformidad a lo indicado en el artículo 6, para cada operación de tratamiento autorizada.

En relación con los residuos peligrosos, información sobre las características de peligrosidad.

d) Operaciones de tratamiento autorizadas identificadas según los códigos recogidos en los anexos II y III.

e) Capacidad máxima de tratamiento de residuos de cada operación que se lleva a cabo en la instalación.

f) Tipos y cantidades de residuos identificados mediante los códigos LER que se autoriza producir como consecuencia de las operaciones de tratamiento.

g) Disposiciones que puedan ser necesarias relativas al cierre y al mantenimiento posterior de las instalaciones.

h) Fecha de la autorización y plazo de vigencia.

i) Otros requisitos relativos a la instalación de tratamiento de residuos, entre ellos, las fianzas, seguros o garantías financieras que sean exigibles de acuerdo con la normativa de residuos.

2.

Contenido de la autorización de las personas físicas o jurídicas para la realización de operaciones de recogida y tratamiento de residuos:

a) Identificación de la persona física o jurídica autorizada para llevar a cabo la actividad de recogida o tratamiento de residuos, incluido domicilio o sede social y NIF.

b) Tipo de residuos cuya recogida u operación de tratamiento se autoriza identificados mediante los códigos LER.

c) Operaciones de tratamiento autorizadas identificadas según los códigos recogidos en los anexos II y III, indicando, para cada operación, los códigos LER de los residuos autorizados.

d) Bilketa-eragiketen kasuan, hondakinak baldintza egokietan biltzeko erabiliko diren ibilgailuen identifikazioa eta ezaugarriak.

e) Tratamendu-eragiketen ondorioz sor daitezkeen hondakin motak, LER kodeen bidez identifikatuak.

f) Baimenaren data eta indarraldia.

g) Identifikazio-zenbakia (NIMA), hala dagokionean.

h) Eskatzen diren beste betekizun batzuk, hala nola hondakinen araudiaren arabera eska daitezkeen fidantzak, aseguruak edo finantza-bermeak izatea.

d) En el caso de operaciones de recogida, identificación y características de los vehículos utilizados para efectuar la recogida de los residuos indicados en condiciones adecuadas.

e) Tipo de residuos identificados mediante los códigos LER que se autoriza producir como consecuencia de las operaciones de tratamiento.

f) Fecha de la autorización y plazo de vigencia.

g) Número de identificación (NIMA), cuando proceda.

h) Otros requisitos exigidos entre ellos, las fianzas, seguros o garantías financieras que sean exigibles de acuerdo con la normativa de residuos.

XI. ERANSKINA

35. artikuluan adierazitako hondakin-ekoizle eta -kudeatzaileen komunikazioaren edukia

1.
Hondakinak sortzen dituzten industriren edo jardueren komunikazioek eduki hau izango dute:
 - a) Enpresa eta haren legezko ordezkaria identifikatzeko datuak, enpresaren IFZ barne.
 - b) Zentro ekoizlea identifikatzeko datuak, zentroaren kokapena —posta-helbidearen eta koordenatu geografikoen bidez identifikatua, uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuaren arabera— eta ekonomia-jardueren kodea (EJSN).
 - c) Urtero sortzea aurreikusten den hondakin-kantitatea.
 - d) Prozesu bakoitzean sortutako hondakinak, 6. artikuluaaren arabera identifikatuak eta, hala badagokio, I. eranskinaren arabera karakterizatuak.
 - e) Ekoizpen-lekuaren biltegitarte-baldintzak.
 - f) Hondakinak tratatzeko aurreikusita dauden eragiketak eta hondakinak tratatzeko instalazioaren kudeatzailearekin egindako tratamendu-kontratua; halako kontraturik ez badago, ekoizleak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko du, hitzemandako tratamendu-instalazioaren kudeatzailearekin tratamendu-kontratua hitzartuko duela.
 - g) Komunikazioa elektronikoki aurkezteko behar den beste edozein identifikazio-datu.
2.
Hondakinak profesionalki garraiatzen dituzten enpresen komunikazioek eduki hau izango dute:
 - a) Enpresa eta haren legezko ordezkaria identifikatzeko datuak, IFZ eta EJSN barne.
 - b) Salgaiak garraiatzearen arloan indarrean dagoen legeriaren arabera, enpresak duen baimenaren edukia.
 - c) Garraiatu beharreko hondakinak, 6. artikuluaaren arabera identifikatuak.
 - d) Komunikazioa elektronikoki aurkezteko behar den beste edozein identifikazio-datu.
3.
Negoizatzaileek eta agenteek aurkeztu behar dituzten komunikazioek eduki hau izango dute:
 - a) Enpresa eta haren legezko ordezkaria identifikatzeko datuak, helbidea edo egoitza soziala eta IFZ.
 - b) Egingo dituzten jardueren deskribapena.
 - c) 6. artikuluaaren arabera identifikatutako hondakinak.
 - d) Negoizatzaileen kasuan, hondakinaren balio positiboaren egiaztatzea; hondakinak fisikoki hartutakoan, zer instalaziotan biltegitratuko dituzten ere adieraziko dute.

ANEXO XI

Contenido de la comunicación de los productores y gestores de residuos del artículo 35

1.
Contenido de las comunicaciones de las industrias o actividades productoras de residuos:
 - a) Datos de identificación de la empresa y de su representante legal; incluido el NIF de la empresa.
 - b) Datos de identificación del centro productor, incluyendo su ubicación identificada mediante dirección postal y coordenadas geográficas, definidas conforme al Real Decreto 1071/2007, de 27 de julio, y el código de actividades económicas (CNAE).
 - c) Cantidad estimada de residuos que se tiene previsto producir anualmente.
 - d) Residuos producidos en cada proceso identificados de conformidad con el artículo 6, y en su caso, caracterizados según el anexo I.
 - e) Las condiciones de almacenamiento en el lugar de producción.
 - f) Las operaciones de tratamiento previstas para los residuos, el contrato de tratamiento con el gestor de la instalación de tratamiento de los residuos, cuando se disponga del mismo, o en su defecto declaración responsable del productor en la que haga constar su compromiso de celebrar con el gestor de la instalación de tratamiento el correspondiente contrato de tratamiento.
 - g) Cualquier otro dato de identificación necesario para la presentación electrónica de la comunicación.
2.
Contenido de las comunicaciones de las empresas que transportan residuos con carácter profesional:
 - a) Datos de identificación de la empresa y de su representante legal, incluido NIF y CNAE.
 - b) Contenido de la autorización de que disponga en virtud de la legislación vigente en materia de transporte de mercancías.
 - c) Residuos a transportar e identificados de conformidad con el artículo 6.
 - d) Cualquier otro dato de identificación necesario para la presentación electrónica de la comunicación.
3.
Contenido de las comunicaciones que deben presentar los negociantes y agentes:
 - a) Datos de identificación de la empresa y de su representante legal, domicilio o sede social, incluido el NIF.
 - b) Descripción de las actividades que van a realizar.
 - c) Residuos identificados de conformidad con el artículo 6.
 - d) En el caso de los negociantes, acreditación documental del valor positivo de los residuos y, cuando tomen posesión física de los residuos, indicación de la instalación de almacenamiento.

Orobat, informazioa erantsiko da hondakinen hasierako ekoizleari edo beste edozein edukizaileri tratamenduaren eragiketa osorik egin dela agiri bidez ziurtatzeko mekanismoari buruz.

4.

Instalazio mugikorren kudeatzaileek autonomia-erkidego bakoitzean aurkeztu behar dituzten komunikazioek eduki hau izango dute:

- a) Kudeatzailea eta haren legezko ordezkaria identifikatzeko datuak, IFZ eta NIMA barne.
- b) Baimendutako instalazio mugikorra identifikatzeko datuak, NIMA barne.
- c) Tratamendu-lekuaren kokapena, koordenatu geografikoen bidez identifikatua, uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuaren arabera; tratamenduaren hasiera- eta amaiera-datak ere adieraziko dira.
- d) Tratatu beharreko hondakin mota eta kantitatea, 6. artikulua arabera identifikatuak.
- e) Sortutako hondakin mota, kantitatea eta destinoa, 6. artikulua arabera identifikatuak.
- f) Komunikazioa elektronikoki aurkezteko behar den beste edozein identifikazio-datu.

5.

Banaketako plataforma logistikoen komunikazioak eduki hau izango du:

- a) Enpresa eta haren legezko ordezkaria identifikatzeko datuak, helbidea edo egoitza soziala eta IFZ.
- b) Hondakinak biltegitzeko zerbitzua zer enpresa banatzaileari eman, enpresa horiek identifikatzeko datuak, helbidea edo egoitza soziala eta IFZ.
- c) Hondakinak biltegitzeko gehieneko edukiera.
- d) Urtero biltegitzea aurreikusten den hondakin mota eta kantitatea, 6. artikulua arabera identifikatuak.
- e) Mota guztietako hondakinak biltegitzeko baldintzak.
- f) Hondakin-fluxu bakoitzaren araudiak eskatzen duen beste edozein informazio.
- g) Komunikazioa elektronikoki aurkezteko behar den beste edozein identifikazio-datu.

6.

Komunikazioa aurkeztearekin batera, aplikatu behar diren arauak eskatzen dituzten fidantzak, aseguruak edo finantza-berme baliokideak harpidetu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

Asimismo, se incluirá información sobre el mecanismo para acreditar documentalmente al productor inicial u otro poseedor de los residuos que se ha llevado a cabo la operación completa de su tratamiento.

4.

Contenido de las comunicaciones que deben presentar los gestores de las plantas móviles en cada comunidad autónoma:

- a) Datos de identificación del gestor y de su representante legal, incluido el NIF y NIMA.
- b) Datos de identificación de la instalación móvil autorizada, incluido el NIMA.
- c) Ubicación, identificada mediante coordenadas geográficas, definidas conforme al Real Decreto 1071/2007, de 27 de julio, donde tendrá lugar el tratamiento; fecha de inicio y finalización del mismo.
- d) Tipo y cantidad de residuos a tratar, identificados de conformidad con el artículo 6.
- e) Tipo, cantidad y destino de los residuos generados, identificados de conformidad con el artículo 6.
- f) Cualquier otro dato de identificación necesario para la presentación electrónica de la comunicación.

5.

Contenido de la comunicación de las plataformas logísticas de la distribución será el siguiente:

- a) Datos de identificación de la empresa y de su representante legal, domicilio o sede social, incluido el NIF.
- b) Datos de identificación de las empresas distribuidoras a las que presta servicio de almacenamiento de residuos, domicilio o sede social, incluido el NIF.
- c) Capacidad máxima de almacenamiento.
- d) Tipo y cantidad estimada de residuos que se tiene previsto almacenar anualmente, identificados de conformidad con el artículo 6.
- e) Condiciones de almacenamiento para los diferentes tipos de residuos.
- f) Cualquier otra información exigida por la normativa reguladora de cada flujo de residuos.
- g) Cualquier otro dato de identificación necesario para la presentación electrónica de la comunicación.

6.

En la presentación de la comunicación se acompañará la documentación acreditativa de la suscripción de fianzas, seguros o garantías financieras equivalentes exigibles conforme a las normas aplicables.

XII. ERANSKINA

Erantzukizun hedatuko sistema indibidualen komunikazioaren gutxieneko edukia

1. Ekoizlea identifikatzeko datuak: egoitza soziala eta IFZ.

Adierazi behar da, orobat, pertsona hori fabrikatzailea, inportatzailea edo Europar Batasunaren barruko eskuratzzailea den.

2. Merkatuan urtero postuak sortzen dituzten produktuen identifikazioa (mota eta pisua) eta sor daitezkeen hondakinen pisu zenbatetsia (LER kodearen bidez identifikatuko dira hondakinak).

3. Hala badagokio, produktuak berrerabiltzeko sistemaren antolamendua eta bilketa-guneak.

4. Hondakinen kudeaketa antolatzeko sistemaren eta bilketa-guneen deskribapena; urtero biltzea aurreikusten diren hondakinen kantitatea —pisua adierazita eta LER kodea eta autonomia-erkidegoa zehaztuta—, eta berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko eta beste balorizazio eta ezabatze modu batzuetarako aurreikusten diren ehunekoak.

5. Lankidetzan aritzeko aukeratu diren kudeatzaileen identifikazioa, zehaztuta zer kudeaketa-eragiketa egingo dituzten eta zer inskripzio-kode duten Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroan.

6. Harpidetutako finantza-bermearen kopia, hala badagokio.

7. Hondakinak kudeatzeko izenpetu diren kontratuen eta akordioen kopiak.

8. Jarduerak finantzatzeko modua.

9. Jardueren lurralde-eremua.

10. Datuak biltzeko eta administrazio publikoei informazioa emateko prozedura.

ANEXO XII

Contenido mínimo de la comunicación de los sistemas individuales de responsabilidad ampliada

1. Datos de identificación del productor: sede social y NIF.

Indicación de si este es fabricante, importador o adquirente intracomunitario.

2. Identificación (tipo y peso) de productos que produce puestos en el mercado anualmente y una estimación en peso de los residuos que prevén generar identificados según código LER.

3. Descripción de la organización del sistema de reutilización de productos, si procede, incluyendo los puntos de recogida.

4. Descripción del sistema de organización de la gestión de residuos, incluyendo los puntos de recogida, la estimación de los residuos que prevé recoger anualmente, en peso, por código LER y por comunidad autónoma, así como los porcentajes de preparación para la reutilización, reciclado u otras formas de valorización y eliminación que prevé alcanzar.

5. Identificación de los gestores con los que se prevé colaborar, con indicación de las operaciones de gestión que lleven a cabo y su código de inscripción en el Registro de producción y gestión de residuos.

6. Copia de la garantía financiera suscrita, si procede.

7. Copia de los contratos suscritos y de los acuerdos celebrados para la gestión de los residuos.

8. Forma de financiación de las actividades.

9. Ámbito territorial de actuación.

10. Procedimiento de recogida de datos y de suministro de información a las administraciones públicas.

XIII. ERANSKINA

Erantzukizun hedatuko sistema kolektiboen baimen-eskaeraren gutxieneko edukia

1. Sistemaren forma juridikoa, egoitza soziala eta funtzionamendua (barne-funtzionamenduko arauak eta erabakiak hartzeko prozesua); zer produktu eta hondakin hartzen dituen eta zein duen jarduketaren eremu geografikoa; kideen identifikazioa, eta produktu-ekoizle berriak sartzeko irizpideak eta baldintzak.

2. Produktuaren ekoizlearen erantzukizun hedatutik eratorritako betebeharrak betetzeko neurrien azalpena, erregulazio espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Kudeaketa antolatuz gero, horretarako erabiliko den sistemari buruzko informazioa eta justifikazioa jasoko dira (besteak beste, bilketa-guneak, kudeatzaileen identifikazioa eta egingo diren kudeaketa-eragiketak).

3. Hala badagokio, entitate administratzailearen identifikazioa, bai eta entitate horrek erantzukizun hedatuko sistema kolektiboarekin eta hura osatzen dutenekin izango dituen harreman juridikoak eta loturak.

4. Hala badagokio, administrazio publikoekin ezarriko diren harreman juridikoak, loturak edo akordioak, eta entitateekin, enpresekin edo beste agente ekonomiko batzuekin hondakinak kudeatzeko egingo dituzten akordioak edo kontratuak, esleitutako betebeharrak betetzeko.

5. Sistema finantzatzeko moduaren azalpena: diru-sarreraren eta gastuen zenbatespena.

Hondakinak kudeatzeagatik kostu gehigarriak izaten badituzte ekoizleek eta, hala badagokio, banatzaileek, adierazi beharko da zer metodo erabiliko den sistemak bere gain hartutako betebeharren kostu osoa estaltzeko kuotaren zenbatekoa kalkulatu eta ebaluatzeko, eta bermatu beharko da hura aski izango dela aurreikusitako kudeaketa finantzatzeko; hala badagokio, produktuaren gainean jasanaraziko den kostua ere zehaztu beharko da.

Egoki denean, kuota hori material, mota eta kategorien arabera desagregatuta adieraziko da, eta finantza-ekarpenak modulatzeko erak ere azalduko dira.

Orobat, kuota biltzeko modua zehaztu beharko da.

ANEXO XIII

Contenido mínimo de la solicitud de autorización de los sistemas colectivos de responsabilidad ampliada

1. Identificación forma jurídica, sede social del sistema, descripción de su funcionamiento (normas de funcionamiento interno y proceso de toma de decisiones), descripción de los productos y residuos sobre los que actúa así como de la zona geográfica de actuación, identificación de los miembros, criterios para la incorporación de nuevos productores de producto y descripción de las condiciones de su incorporación.

2. Descripción de las medidas para el cumplimiento de las obligaciones derivadas de la responsabilidad ampliada del productor del producto, conforme a lo establecido en las regulaciones específicas.

En caso de organizar la gestión, deberá contener información y justificación del sistema de organización de esta gestión (puntos de recogida, identificación de los gestores, con indicación de las operaciones de gestión que se lleven a cabo, entre otros).

3. Identificación, en su caso, de la entidad administradora así como las relaciones jurídicas y vínculos que se establezcan entre esta entidad y el sistema colectivo de responsabilidad ampliada y quienes lo integren.

4. Relaciones jurídicas y vínculos o acuerdos que se establezcan con las administraciones públicas en su caso, entidades o empresas con quienes acuerden o contraten para la gestión de los residuos en cumplimiento de las obligaciones que se les atribuyan o con otros agentes económicos.

5. Descripción de la financiación del sistema: estimación de ingresos y gastos.

Cuando la gestión de los residuos suponga un coste adicional para los productores, y en su caso para los distribuidores, indicación de los métodos de cálculo y de evaluación del importe de la cuota que cubra el coste total del cumplimiento de las obligaciones que asume el sistema, garantizando que la misma servirá para financiar la gestión prevista, asimismo se indicará, en su caso, el coste que se repercute en el producto.

Esta cuota cuando proceda se presentará desagregada por materiales, tipos o categorías, indicando, en su caso, la forma en la que se modulan las contribuciones financieras.

Asimismo se especificará el modo de su recaudación.

Kuotak berrikusteko baldintzak eta modalitateak ere adieraziko dira, kontuan izanik zer bilakaera izan duen betebeharren betetze-mailak.

6.

Sistema publikoei finantzaketa-irizpideei buruz egindako proposamena, hala badagokio.

7.

Erantzukizun hedatuko sistema kolektiboaren eginkizunak betetzearekin eta administrazio publikoei informazioa ematearekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzten operadoreen datuak biltzeko prozedura, zeinak egiaztatu beharko baitu, gutxienez, 38. artikuluan eta, hala badagokio, hondakin-fluxu bakoitzerako garapen-erregelamenduetan ezarritako edukia jasotzen dela.

8.

Urtero biltzea aurreikusten den hondakin-kantitatea (kg eta unitateak).

9.

Berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko eta balorizatzeke aurreikusten diren ehunekoak, eta zer epe eta mekanismo erabiliko diren jarraipen-lanak egiteko, funtzionamendua kontrolatzeko eta betetze-maila egiaztatzeke.

Las condiciones y modalidades de revisión de las cuotas en función de la evolución del cumplimiento de las obligaciones asumidas.

6.

En su caso, propuesta de los criterios de financiación a los sistemas públicos.

7.

Procedimiento de recogida de datos de los operadores que realicen actividades relacionadas con el ejercicio de las funciones del sistema colectivo de responsabilidad ampliada y de suministro de información a las administraciones públicas, que como mínimo deberá acreditar que se responde al contenido establecido en el artículo 38 y lo establecido en los reglamentos de desarrollo para cada flujo de residuos, en su caso.

8.

Previsión de cantidades de residuos (kg y unidades) que se prevé recoger anualmente.

9.

Porcentajes previstos de preparación para la reutilización, reciclado y valorización con sus correspondientes plazos y mecanismos de seguimiento, control de funcionamiento y verificación del grado de cumplimiento.

XIV. ERANSKINA

Lurzoru kutsatuen eta borondatezko deskontaminazioen arloko informazio-betebeharrak A zatia. Lurzoru kutsatuen edo borondatezko deskontaminazioen deklarazioaren edukia

1. Kokalekuari buruzko informazioa.
 - a) Probintzia.
 - b) Udalerria.
 - c) Kalea/Aurkintza/Errepidea.
 - d) Zenbakia / Kilometro-puntua.
 - e) Posta-kodea.
 - f) UTM X-Y koordenatuak (Kanarien kasuan, adierazi behar da ETRS 89 ala REGCAN95 sistema geodesikoa erabili den, eta, kasu batean zein bestean, proiektzio-eremua zehaztu).
 - g) Finkaren izena.
2. Katastroko eta erregistroko informazioa.
 - a) Finkaren katastro-erreferentzia.
 - b) Liburukia, liburua eta folioa.
 - c) Finkaren jabea.
 - d) Finkaren edukitzailea.
3. Lurzoruaren erabilera.
 - a) Lurzoruaren sailkapena: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria, urbanizaezina edo autonomia-erkidegoko hirigintza-legeriaren arabera haiekin parekatutako kategoriak.
 - b) Lurzoruaren kalifikazioa: bizitegi-erabilera, industria-erabilera edo beste batzuk (zehaztu).
 - c) EJSN.
4. Lurzoruaren kutsadurari buruzko informazioa.
 - a) Atzeman diren kutsatzaileak (adierazi bat edo gehiago): konposatu organiko lurrunkorrak, BTEX konposatuak, petrolioaren hidrokarburo totalak, konposatu organokloratuak, metalak edo beste batzuk (zehaztu).
 - b) Lurzoru kutsatuaren bolumena (m³).
 - c) Lurzoru kutsatuaren azalera (m²).
5. Deskontaminazioari buruzko informazioa.
 - a) Deskontaminazio mota (adierazi bat edo gehiago): lurrunen erauzketa, indusketa eta in situ edo ex situ tratamendua (adierazi tratamendu mota), indusketa eta ezabaketa, uren eta fase aske ez-akuosoen ponpaketa eta tratamendua, edo beste batzuk (zehaztu).
 - b) Tratatu den lurzoru kutsatuaren bolumena (m³).
 - c) Erauzi eta tratatu den ur kutsatuaren bolumena (m³).
 - d) Zaintza-planaren iraupena (hilabeteak).
 - e) Deskontaminazio-obren aurrekontuko kostua (eurotan).
 - f) Zaintza-planaren aurrekontuko kostua (eurotan).
- 6.

ANEXO XIV

Obligaciones de información en materia de suelos contaminados y de descontaminaciones voluntarias Parte A. Contenido de la declaración de suelo contaminado o de descontaminación voluntaria

1. Información de situación.
 - a) Provincia.
 - b) Municipio.
 - c) Calle/Paraje/Carretera.
 - d) Número/Punto Kilométrico.
 - e) Código Postal.
 - f) Coordenadas X-Y UTM (especificando sistema geodésico ETRS 89 o REGCAN95 en el caso de Canarias, y huso en ambos casos).
- g) Denominación de la finca.
2. Información catastral y registral.
 - a) Referencia catastral de la finca.
 - b) Tomo, Libro y Folio.
 - c) Propietario de la finca.
 - d) Poseedor de la finca.
3. Uso del suelo.
 - a) Clasificación del suelo: urbano, urbanizable, no urbanizable o categorías asimiladas de conformidad con la legislación urbanística autonómica.
 - b) Calificación del suelo: uso residencial, industrial, otros (especificar).
 - c) CNAE.
4. Información relativa a la contaminación del suelo.
 - a) Contaminantes detectados (señalar uno o más): compuestos orgánicos volátiles, compuestos BTEX, hidrocarburos totales del petróleo, compuestos organoclorados, metales, otros (especificar).
 - b) Volumen de suelo contaminado (m³).
 - c) Superficie de suelo contaminado (m²).
5. Información relativa a la descontaminación.
 - a) Tipo de descontaminación (señalar una o más): extracción de vapores, excavación y tratamiento in situ o ex situ (indicar tipo de tratamiento), excavación y eliminación, bombeo y tratamiento de aguas o fases libres no acuosas, otros (especificar).
 - b) Volumen de suelo contaminado tratado (m³).
 - c) Volumen de agua contaminada extraída y tratada (m³).
 - d) Duración de plan de vigilancia (meses).
 - e) Coste presupuestado de obras de descontaminación (euros).
 - f) Coste presupuestado plan de vigilancia (euros).
- 6.

Datu administratiboak (lurzoru kutsatuen deklarazioetarako soilik).

- a) Lurzoru kutsatuaren deklarazioari buruzko ebazpenaren data.
- b) Lurzoru kutsatuaren sailkapena kentzeko ebazpenaren data.
- c) Deskontaminazio-lanak egitera behartuta dagoen pertsona.

B zatia. Lurzoruen kutsaduraren arloko informazio-betebeharrak

- a) Egoera-txostenen kopuruari eta bilakaerari buruzko informazioa, Gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoa aplikatuz.
- b) Lurzoru kutsatuekin zerikusia duten prozedurak: ebatzitako prozedurak, egin diren deskontaminazio-eta berreskuratze-jarduketak, egiten ari diren edo aurki hasiko diren deskontaminazio- eta berreskuratze-jarduketak eta izapidetzen ari diren prozedurak.
- c) Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko egin diren jarduketak eta inbertsioak: eskualdeko jarduketa-plana; prebentzio-neurriak; jendea informatzeko neurriak; ebazpenetan, azterlanetan eta gida metodologikoetan agindutako jarduketa osagarriak; inbertsioak, eta finantzaketa-mekanismoak.

Datos Administrativos (sólo para las declaraciones de suelos contaminados).

- a) Fecha resolución de declaración de suelo contaminado.
- b) Fecha de resolución de desclasificación como suelo contaminado.
- c) Obligado a ejecutar trabajos de descontaminación.

Parte B. Obligaciones de información en materia de contaminación de suelos

- a) Información sobre la cantidad y evolución de los Informes de situación, en aplicación de lo que reglamentariamente determine el Gobierno.
- b) Procedimientos relacionados con suelos contaminados: procedimientos resueltos, actuaciones de descontaminación y recuperación ejecutadas, actuaciones de descontaminación y recuperación en ejecución o próximas a iniciarse y procedimientos en tramitación.
- c) Actuaciones e inversiones realizadas en materia de prevención de la contaminación del suelo: plan regional de actuación, medidas de prevención, medidas de información al público, actuaciones complementarias dictadas en resoluciones, estudios y guías metodológicas e inversiones y mecanismos de financiación.

XV. ERANSKINA

65. artikuluan adierazitako urteko memorian jaso behar den informazioa

Enpresaren identifikazioa (NIMA):

Tratamendu-eragiketa:

Erreferentzia-urtea:

Eragiketaren sarrerak:

Eragiketaren irteerak:

Hondakina (1)

Kantitatea (2)

Jatorria (4)

Tratamenduaren hondakinak / Materialak (1)

Kantitatea (2)

Destinoa (5)

Eragiketa (3)

Enpresa

Abenduaren 31n biltegitatuta dauden hondakinak:

Hondakinak (1)

Kantitatea (2)

(1) Lege honen 6. artikulua araberaren arabera identifikatuko dira hondakinak.

Materialen kontzeptuan, zera jasoko da: tratatu ondoren hondakin izateari utzi dioten materialak.

(2) Kantitateak tonatan adieraziko dira.

(3) Tratamendu-eragiketaren lege honen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodeen bidez identifikatuko dira.

(4) Hondakinak zer enpresa edo entitatetatik datozen adierazi behar da, baita haien NIMA ere, baldin eta Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroan inskribatuta badaude; bestela, «partikularrak» idatzi behar da jatorriari dagokion atalean.

(5) Tratamenduaren hondakinen edo materialen destinoa adierazi behar da, bai eta zer eragiketarako erabiliko diren ere, eta hondakinak tratatzeko instalazioaren NIMA.

Hondakin izateari utzi dioten hondakinen kasuan, enpresa hartzailea zein den adieraziko da, dagokion ministro-aginduen exijitutako adostasun-deklarazioarekin bat etorritik.

ANEXO XV

Información requerida en la memoria anual prevista en el artículo 65

Identificación de la empresa (NIMA):

Operación de tratamiento:

Año de referencia:

Entradas a la operación:

Salidas de la operación:

Residuo (1)

Cantidad (2)

Origen (4)

Residuos del tratamiento / materiales (1)

Cantidad (2)

Destino (5)

Operación (3)

Empresa

Residuos almacenados a 31 de diciembre:

Residuos (1)

Cantidad (2)

(1) Los residuos se identificarán de conformidad con el artículo 6.

En el concepto material, se indicará el residuo tratado que ha alcanzado el fin de la condición de residuo.

(2) Las cantidades se expresarán en toneladas.

(3) Las operaciones de tratamiento se identificarán mediante la codificación establecida en los anexos II y III de esta ley.

(4) Identificación de la empresa o entidad de donde provienen los residuos, incluyendo el NIMA cuando estén inscritos en el Registro de producción y gestión de residuos; o en su caso, indicando como origen «particulares».

(5) Indicación del destino de los residuos del tratamiento o de los materiales, incluyendo la operación a la que se destinan, e identificando el NIMA de la instalación de tratamiento en la que se tratan los residuos.

En el caso de los residuos que han alcanzado el fin de la condición de residuos se indicará la empresa destinataria, de acuerdo a la declaración de conformidad exigida en la correspondiente orden ministerial.

XVI. ERANSKINA

Laginak hartzea eta analisiak egitea

1. Ekoizleen eta kudeatzaileen instalazioek nahitaez eduki behar dituzte neurketa eta lagin-hartze adierazgarriak egitea ahalbidetuko duten gailu, erregistro, kutxatila eta gainerako tresna egokiak.

2. Laginek adierazgarriak izan behar dute, eta behar bestekoak, laborategiko eragiketatarako behar diren hiru zati berdin bereizi ahal izateko.

UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera hartuko dira laginak (UNE-EN 14899:2007 araua: Hondakinen karakterizazioa. Hondakinen laginak hartzea. Laginketa-plana prestatzeko eta aplikatzeko eskema), kontuan hartuta UNE-CEN/TR 15310 serieko txosten teknikoak edo horiek ordeztuko dituzten arauak.

Kutsatzaileen analisiak egiteko, CEN arauak aplikatuko dira.

3. Lagin-hartzearen akta idatziko da, gutxienez datu hauek bilduta:

- a) Instalazioa identifikatzeko datuak.
- b) Instalazioaren ordezkaria identifikatzeko datuak.
- c) Ikuskatzailea identifikatzeko datuak.
- d) Laginaren datuak (lagin-hartzearen data eta ordua, deskribapena, laginketa-puntuen kokapena eta abar).
- e) Zehaztu beharreko parametro analitikoak.
- f) Garraio- eta kontserbazio-baldintzak.

4. Behar bezala etiketatuta eta zigilatuta dauden ontzietan sartuko dira laginak, inork manipula ez ditzan.

Etiketetan, zera adierazi behar da:

- a) Hurrenkera-zenbakia.
- b) Ontziaren barruan dagoen materiaren deskribapena.
- c) Lagin-hartzearen leku zehatza.
- d) Lagin-hartzearen data eta ordua.
- e) Ikuskatzailearen eta ikuskatutako instalazioaren arduradunaren izen-abizenak eta sinadurak.

f) Zehaztu beharreko parametroak.

5. Eranskin honen 1. apartatuan aipatzen diren hiru zatietatik bat ekoizlearen edo kudeatzailearen esku geratuko da, beste bat ikuskatzaileak laborategi akreditatu bati emango dio, azter dezan, eta hirugarren zatia administrazio ikuskatzailearen esku geratuko da.

6. Behin analisisa eginda, laborategi akreditatuak hiru kopia egingo ditu. Horietako bi lagina entregatu

ANEXO XVI

Toma de muestras y análisis

1. Las instalaciones de productores y gestores deberán contar, necesariamente, con los dispositivos, registros, arquetas y demás utensilios pertinentes que hagan posible la realización de mediciones y tomas de muestras representativas.

2. Las muestras se tomarán de modo que se asegure su representatividad, y en cantidad suficiente para poder separar tres porciones iguales para las operaciones que deban realizarse en laboratorio.

La toma de muestras se realizará de acuerdo a la norma UNE-EN 14899:2007 (Caracterización de residuos. Toma de muestras de residuos. Esquema para la preparación y aplicación de un plan de muestreo), y teniendo en cuenta los Informes Técnicos de la serie UNE-CEN/TR 15310, o las normas que las sustituyan.

Los análisis de contaminantes se realizarán con arreglo a las Normas CEN existentes.

3. Se levantará acta de la toma de muestra que deberá incluir, al menos, los siguientes datos:

- a) Datos identificativos de la instalación
- b) Datos identificativos del representante de la instalación
- c) Datos identificativos del personal inspector
- d) Datos de la muestra (fecha, hora de muestreo, descripción, localización del o de los puntos de muestreo, etc.)
- e) Parámetros analíticos a determinar
- f) Condiciones de transporte y conservación

4. Se introducirán en recipientes convenientemente sellados para impedir su manipulación y etiquetados.

En las etiquetas figurará:

- a) Un número de orden.
- b) Descripción de la materia contenida.
- c) Lugar preciso de la toma.
- d) Fecha y hora de la toma.
- e) Nombres y firmas del Inspector y de la persona responsable de la instalación objeto de la inspección.
- f) Parámetros a determinar.

5. De las tres porciones a que se refiere el apartado 1, una quedará en poder del productor o gestor, otra será entregada por el Inspector a un laboratorio acreditado para su análisis y la tercera quedará en poder de la administración que hubiera realizado la inspección.

6. Una vez realizado el análisis, el laboratorio acreditado hará tres copias, dos de las cuales las

zuen administrazio-organora bidaliko ditu; organo horrek kopietako bat artxibatu egingo du eta bestea ekoizleari edo kudeatzaileari bidaliko dio.

Hirugarren kopia eta administrazioaren esku geratu zen laginaren zatia laborategian utziko dira, behar izanez gero agintaritzaren eskura jartzeko.

7.

Analizatutako hondakinen titularrak adierazten badu ez dagoela ados analisien emaitzarekin, beste analisi bat egingo du laborategi akreditatu ezberdin batek. Analisi horren emaitza behin betikoa izango da, eta hura egiteak dakartzan gastuak hondakinen titularrak ordainduko ditu.

Desadostasun-adierazpena analisisa egiteko agindu duen organo eskudunari bidali beharko dio hondakinen titularrak; horretarako, hilabeteko epea izango du, analisiaren emaitza komunikatzeko agiria jaso duen egunetik aurrera.

enviará al órgano de la administración que hizo entrega de la muestra, quien archivará una de las copias y enviará una segunda copia al productor o gestor.

La tercera copia junto a la porción de la muestra que quedó en poder de la administración permanecerán en el laboratorio para ponerla, en caso necesario, a disposición de la autoridad judicial.

7.

Si el titular de los residuos analizados manifiesta disconformidad con el resultado de los análisis, se procederá a realizar un nuevo análisis por otro laboratorio acreditado, cuyo resultado será definitivo, siendo los gastos de su realización a cargo del titular de los residuos.

La manifestación de disconformidad deberá ser realizada por el titular de los residuos analizados ante el órgano competente que haya ordenado el análisis, en el plazo de un mes a partir del día del recibo de la comunicación del resultado del mismo.